

# MAILOPE

ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI

332 - 2025eko OTSAILA



## Zer da Nafarroako landa-eremuko merkataritza dinamizatzeke zerbitzu-sarea?

Cederna Garalur Elkarte Nafarroako Landa Merkataritza Dinamizatzeke Zerbitzu Sareko kidea da. Sarea Nafarroako Gobernuko Merkataritza eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusiak sustatzen du, tokiko ekintza-taldeen lankidetzarekin. Gure helburua landa-eremuko merkataritza suspertzea da, ekintza hauen bidez:

- ▶ Behaketa (estrategiak diseinatzeko funtsezko informazioa lortzeko iturri gisa)
- ▶ Komunikazioa (informazioa bidertzeko euskarri gisa)
- ▶ Lankidetzak
- ▶ Lehiakortasuna eta enpresentzako aholkularitza

### Cedernatik aholkularitza pertsonalizatua eskaintzen dugu eskualde guztietan

Negozioaren kudeaketa hobetzeko tresna eta baliabide berriak ezagutzeko eta horiek saltokian integratzeko aukera izan dezaten. Gainera, hobekuntza-prozesu osoan lagunduko diegu honako arlo haueetan:

- ▶ Eraldaketa digitala
- ▶ Estrategia
- ▶ Saltokia
- ▶ Bezeroak/pertsonak
- ▶ Kudeaketa

### Mahai gainean dauzkagun programak 2025erako: Ikerketa Berria 2025. (Belaunaldi Errele-

boa astertzeko galderak erantsiak) – analisia, txostenaren publikazioa eta egoeraren berri (sektorearen argazkia) Nafarroako Gobernura eraman. Ikerketa lana zabaldu sektoreari.

**‘Praktika onen’ edo jardunbide egokien bideoa.** Bertako saltokietan erosteko bultzada eta biztanleriari sentsibilizazioa. Jardunbide egokiak ikustaraztea beste merkatariek gauza bera egiteko (gertutasuna, jasangarritasuna, zaintza, kalitatea eta oinarritzko presentzia digitala). Pieza euskal bertsioan sortzen (publikazioa, cedernako web orrialdean eta *comercio\_cederna\_mendebaldea* Instagram profilean. (Emailaz eta whatsapppe bidaliko da sektoreari)

Bideoa eskuragai gazteleraz:

Cedernako web orrialdean: Herriko saltokiak dinamizatzeke zerbitzua – Cederna Garalur Instagrameko profilean: Comercio Cederna Mendebaldea (@comercio\_cederna\_mendebaldea) • Fotos y videos de Instagram

### Denok Batekin kolaborazioa: geuregaitzeko. 3 baliabide eskuragai:

- ▶ **Toptop.shop Marketplace-a;** online gunea, produktuak eta zerbitzuak publiko zabalago bati helarazteko.
- ▶ **Giltzaria. Fidelizatzeke txartela.** Bezeroen leialtasuna saritzeko eta

denda behin eta berriz aukeratzeko jarraituko dutela ziurtatzeko.

- ▶ **Kudeaketa Integralerako Sistema.** Eguneroko kudeaketa errazten duen aplikazio berri bat. Eragiketa guztiak plataforma bakar batean integratuz, inbentarioen kudeaketatik hasi eta fakturaziora arte, Giltzaria eta Toptoparekin integratzen dena.

### Zehaztu gabeko datetan bi ekintza mota aurreikusitak (2025 ean egiteko):

Eskolekin harremana eta sentsibilizazio saioak egitea. Ze eragina dauka saltoki batean edo bestean erostea? Ze nolako eskualdea nahi dugu? Bertan lan eta bizi nahi dugu?... Adin txikiko gazteentzat (lehen hezkuntzan).

**Formakuntzak sektorearentzako.** Urte honetako inkestaren arabera aterako dira formakuntza berriak aurten exekutatzeko. Aurreikusita; digitalizazio arloaren inguruan, erraminten ikaskuntza eta erabilerak.

### Egunerokotasuneko lana: Informazioaren zubiak eta antenak gara.

Bai Departamentuko lege berriak, dirulaguntzak etab erraztea, sektorearentzako ateratzen diren programak eta baliabideen informazioa errazten dugu.

**Banan banako aholkularitza egiten dugu.** Nahitaezkoa da banan-banako laguntza eta segimendua egitea.

**Aukera berrien azterlana,** lan taldeen sormena eta segimendua egiten dugu. Cederna Garalurrera atxikitako udalek proposatutako **ekintzak bultzatzen** ditugu.

### Andoni Martín Torrecillas

624 17 89 53  
andonimartin@cederna.es

## MAILLOPE

• MAILLOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:

Aizoa, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atalla, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Batelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitz eta Uztegi.

• ARGITARATZEN DU: Maillope Kultur Elkarte. L.G.: NA 719/93

Maillopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik. [issuu.com/maillopealdizkaria](http://issuu.com/maillopealdizkaria)

• ERREDAKZIOA:

Ainhua Beraza, Aitor Irastorza, Arantxa Mikeo, Ane Ubegun, Irati Moreno, Mikel Hernandorena eta Xanti Begiristain.

• ARGAZKIAK:

Ainhua Beraza, Araxes Ikas Komunitatea, Asier Azpilikueta, Bioziklik, Bingen Beguiristain, Eider Martirena, Imanol Jaka, Iñaki Porto, Jon Urbe, Kirolmank, Lekunberriko Udala, Lekunberriko Udala, Lucia Ayestaran, Maria Eguzkiza, Mikel Zurutuza, Nerea Mazkarian, Pedro Martínez, Plazaola Partzuergo Turistikoa.

• PUBLIZITATEA:

Labrit Multimedia - 948 210 103 - [maillope@labrit.net](mailto:maillope@labrit.net).

• MAKETAZIOA:

Noé Lopez Albizu

• TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udak, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua

LABRIT MULTIMEDIA

## AURKIBIDEA

02 CEDERNA-GARALUR

04 KUXKUXEAN Zorion agurrak

07 MAITE DITUT MAITE Goiko gaineta

8 ERREPORTAJEA Lekunberri duela ehun urteko zenbakitan (eta II)

12 BATZARRE

14 ELKARRIZKETATXOA “Musika niretzat behar bat da, abestean zorionsu naiz” Lucia Ayestaran (Lekunberri)



18 KULTURA

22 KIROLA “Erremontean, tentsioa kudeatzea funtsezkoa da” Kemen Aldabe (Lekunberri) eta Xabier Azpiroz (Uitzi)

26 ELKARRIZKETATXOA “Ongizateak hainbeste dauka bere baitan, inoiz ez dela amaitzen” Lorea Zulet, psikologoa (Lekunberri)

28 PLAZATIK PLAZARA “Akelarrerako gure ametsak idatzi ondoren Zugarramurdiko kobetara joan ginen”

31 AGENDA



### LARRAUNGO AEK

## Euskara eroso bizitzeko

24-25 ikasturtea hasi da. Hauek dira Larraungo AEKn dauden taldeak eta ordutegiak. Interesatuta baldin bazaude, jarri gurekin harremanetan eta hitz egingo dugu talde berriak osatzeko aukerei buruz.

- ▶ Hasiera maila: astelehena eta asteazkena: 17:30-20:00
- ▶ A1 maila: asteartea eta osteguna: 17:15-19:45
- ▶ A2 maila: astelehena eta asteazkena: 16:45-19:15
- ▶ B1 maila: asteartea eta osteguna: 17:30-19:30
- ▶ C1 maila: astelehena: 18:15-21:15

948 604704 – 607622102.  
larraun@aeak.eus

**Guratz eta Xuban Soroa Mugertza**  
Otsailaren 24an urte 1. Zorionak, bikote!  
Musu potolo bana amatxoren partez!



**Itxaso Oreja Altuna**


Otsailaren 1ean, 10 urte. Zorionak, polita!  
Bi esku bete beteekin eta irribarre polit  
horrekin, ongi pasa zure eguna!  
Musu handi bat denon partez!



**Iker Iribarren Azpiroz**  
Martxoaren 24an 3 urte.  
Segi zure irribarrearekin  
gure bizitzak alaitzen.  
Zorionak!



**Markel Iribarren Azpiroz**  
Otsailaren 15ean 2 urte.  
Segi zure irribarrearekin  
gure bizitzak alaitzen.  
Zorionak!



**Araitz Ezeiza Martiarena**

Otsailaren 1ean 13 urte.


**Izai Ezeiza Martiarena**

Otsailaren 2an 10 urte. Zorionak bikote! Segi  
beti bezain bixi eta alai. Musu erraldoi bana  
etxekoan partez.

**Ariane Zurutuza Zabala**

Otsailaren 9an, urte 1. Zorionak, Ariane! Dagoeneko  
urte bat jaio zinela, ze azkar ari zaren handitzen!  
Jarraitu orain arte bezala sorgintxo alai eta zoriontsu  
izaten. Musu handi bat, asko *matte zattun* zure familia.

**June**  
Otsailaren 25ean,  
10 urte. Zorionak,  
June! Musu handi  
bat familia guztiaren  
partez!



Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!  
Idatziezaguzu [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net) e-postara hilaren  
20a baino lehen.



## GERRAREN ETA FAXISMOAREN AURKA MANIFESTAZIOA

Urtarrilaren 25ean gerraren eta faxismoaren aurka gazte langileak Bilbon eta Iruñean elkartu ziren. Mugimendu Sozialistaren arabera, Mendebaldeko kapitalismoak bi arazo larri nagusi sortu ditu: gerra eta faxismoaren hedapena. Hauek Euskal Herrian ere eragina izaten ari direla ohartarazi dute. Gazte Koordinadora Sozialistak faxismoaren gorakada kritikatu eta Euskal Herrian, matxismoa, arrazismoa eta klase desberdintasunak indartzen dituzten ideiak areagotzen ari direla nabarmendu du. Horregatik, gazteriari eta euskal herritar guztiak batzeko deia egin zuten, faxismoaren eta gerraren aurka lehen leerroan egoteko.



## AHT ZUNDAKETAK MARTXAN DIRA

Urtarrilaren 17n "STOP AHT ZUNDAKETAK" ekimenak informazioa batzarra antolatu zuen Izurdiagan, eta 40 lagun inguru bildu ziren. Bertako lekukoek adierazi zuten ostegunean CEMOSA enpresako langileek zulo bat egin zutela trenbidearen ondoan, eta aurrerago, lanak berriro hasteko asmoa zutela. Izurdiagako alkateak azaldu du udalak ez zuela baimenik eman lan horiek egiteko eta gelditzeko agindua eman zuten. Lanak berriro martxan jartzea salatuz, batzarrak elkarretaratze iraunkorra deitu zuen asteburu beran, bi deialdirekin.



## BERRIKUNTZAK PLAZAOLAKO IBILBIDEAN

Bide berdearen irisgarritasuna hobetzeko obrak hasiak dira. Berrikuntzak 280.620 euroko aurrekontua izan du eta bost hilabeteko epearekin lau tarreetan gauzatu dira. Hobekuntzak Leitzako geltokiaren eta Gipuzkoako mugaren artean hasi dira. Prozesuaren barruan, tarte batzuk itxita egon daitezke, baina gainerako bidea irekita egonen da. Hobekuntza lanek bidearen eta zementuaren berritzea, tunelen argiztapenaren hobekuntza, helduleku berriak jartzea, eta mugikortasun urriko pertsonentzako aparkalekuak sortzea ditu helburu, horiek guztiak Europako *Next Generation* funtsen bidez finantzatuak.

## ► Mikel Zurutuza (Atallu)



*Beñaten testigu gisa nator  
idazteko Mailoperi  
bertsotan ez naiz oso aditu  
saiatua bai ugari.*

*Duela pare bat urte pasa  
bizitzen naiz Nafarroan  
pentsamenduak hitz bilakatu  
hausnarketa egin dezadan.*

*Emigranteak egin behar du  
elkarbizitza bat hasi  
bertako jende eta ohiturak  
ikusi eta ikasi.*

*Araizko bailarara heldu dan  
gipuzkoar traste honi  
milesker zuen etxeko gisa  
hartu nauzuen denari.*

*Doinua: Salamankara (Oskorri) Hurrengoa: Mikel Barberia, "Martiko" (Gaintza)*

**SOTIL GARAJEA**  
BETELU  
948 513 007  
[sotilgarajea@gmail.com](mailto:sotilgarajea@gmail.com)

**ekin**  
rotulación  
948 85 32 79

**SAN MIGUEL**  
Taberna-Jatetxea  
Arribe  
948 51 31 34

**LagunasesoriaS.L.**  
Fiskala  
Laborala  
Kontabilitatea  
Seguruak...  
k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232  
[lagunasesoria@terra.es](mailto:lagunasesoria@terra.es)

**Bar Ainhoa**  
• Razioak  
• Pintxoak  
• Ogitarakoak  
• Plater konbinatuak  
• Gosariak Tostadak mermeladarekin  
eta bertan eskuz egindako madalenak,  
erroskilak, croissant-ak eta napolitanak.  
Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera  
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)  
948 504 077 · 639 778 851 · [aitziberalf@hotmail.com](mailto:aitziberalf@hotmail.com)

## JABIER ARISTI GOGOAN

Jabier Aristi ez zen izan Araitz eta Beteluko Euskara Batzordearen kide, baina batzordearen historian haren ekarpena ezinbestekoa izan da. Nahiz eta bileratan parte ez hartu, bagenekien bere laguntza hor izango genuela, ez zuela hutsik egingo.

Kultur Astea iristen zenean, otordu bat prestatu behar bazen, txistulariak bailara osatzen duten herrietara eraman behar baziren... beti hor egoten zen, laguntzeko prest. Mailope lasterka egiten genuenean

ere, Jabierren furgonetak irekitzen zuen lasterketa, ikur bat zen bi bailaratako herriak zeharkatzen.

Jabierrek ustekabean utzi gaitu, Kulturaldian bete-betean ginela gainera. Lerro hauek izan daitezela Araitz eta Beteluko Euskara Batzordean berarekin oroitzen garenen lekuko, eta besarkada haundi bat familiari gu denon partetik.

### Araitz eta Beteluko Euskara Batzordea

## POSTONTZIA

✓ Zein gairi buruzko artikulua irakurtzea gustatuko litzaizuke Mailopen?

✓ Zure herrian edo talde eragilean datorren hilabeterako albistaren bat ba al duzue?

Bidali zure proposamena Mailopeko erredakzio taldera: [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net) / 638 652 339.





**TALLERES GOÑI**  
CHAPA Y PINTURA

- IBILGAILU GUZTIEN TXAPA KONPONKETA ETA MARGOKETA
- BANKADAKO LANAK
- ERROTULAZIOAK
- LLANTA BERRITZEAK
- JASO ETA ETXERA ERAMATEKO ZERBITZUA
- KRISTAL ALDAKETAK
- BARRUKO ETA KANPOKO GARBIKETA
- ADEITASUN AUTOA DOAN




680 859 938 · 948 500 166 · [CHAPIGO@GMAIL.COM](mailto:CHAPIGO@GMAIL.COM)

# maite ditut maite gure bazterrak

## Goiko gaineta

**Ibilbidea:** joan etorria  
**Distantzia:** 4km  
**Desnibela:** 69m  
**Zailtasuna:** erraza

Hurrengoa:

Irati Garziarena Guridi (Gorriti)



**Maria Eguzkiza**  
(Albiasu)

### Zergatik aukeratu dut?

Ibilbide hau bereziki denetariko paisaiak dituelako aukeratu dut eta edozein pertsonak egin dezakeelako. Lagunekin, seme-alabekin egiteko bide aproposa izateaz gain, kirola egiteko ere oso ibilbide egokia iruditzen zait. Gainera, izugarritzko bistak eskaintzen dizkigu bertako paisaiak, bereziki, mailoa guztia bete-betean ikusi daitekeelako.

### Bidea:

- 1 Ibilbidea errepidetik Araitz alderantz goazela Malloak diskoteka zaharra pasa eta ezker aldean dagoen pista batetik hasiko da. Pista hartuko dugu eta ezker aldean kurba gunea iristen den momentuan, pareko pista albo batera utzi eta ezker aldean aldapa gora txiki bat igo ondoren beheraka joko dugu. Horrela, pixkanaka basoan sartzen hasiko gara, Albiasu alderantz.
- 2 Pista jarraituko dugu zuhaitzetan margotutako markei kasu eginez (lerro laranja horizontal batzuk). Horrela, pixka bat nahaskorra den gunea batera iritsiko gara. Bertan, adi egotea eta zuhaitzetako marka horiek aurkitzea gakoa izanen da, bide egokitik jarraitu ahal izateko. Jarraian, "P" itxura duen marka bat ikusiko dugu horietako zuhaitz batean, bertan eskuinaldeko bidea hartuko dugu (goraka doan bideak Lekunberrira eramango gintuzke). Bide horretatik ekingo diogu, ezker aldean edukiko dugun langaren albotik.
- 3 Putzu handi bat dagoen leku batera iritsiko gara eta orduan pista goraka hasiko da, eskuinaldean autobia ikusiko dugularik. Egia da, agian ez dela oso ongi bereizten nondik den bidea baina markek bidea oso ongi zehazten digute.
- 4 Markak jarraituz, beste pista batera iritsiko gara eta gutxinaka Malloak gure parean agertzen hasiko dira. Pista amaitzen denean, ezker aldean Lekunberrira doan beste bide bat egonen da, baina guk eskuinerantz joko dugu. Horrela, Mikeleneko bordara iritsiko gara eta Albiasu herriko etxe batzuk ikusiko ditugu urrutira.
- 5 Azkenik, bordaraino jaitsi garenean, eskuin alde osoan bete-betean Malloak ikusiko ditugu. Pista hau utzi eta goraka doan belarrezko bide bat hartuko dugu Albiasu herrira jaisteko. Bidea bertan dagoen etxe baten parean amaituko da eta bertatik pare-parean edukiko ditugu Malloak eta gure atzealdean Albiasu izeneko herri zoragarria.

Asier Azpilikueta


## Lekunberri duela ehun urteko zenbakitan (eta II)

**1924ko Lekunberriko erroldako 664 biztanleen batezbestekoak eta datu errepikatuenak aintzat hartuta, garai hartako lekunberriar prototipikoak Miguel Echarri Garbisu eta Maria Zubeldia Astiz izanen lirateke, biak Larraunen sortuak, eta biek jakinen lukete irakurtzen eta idazten. Miguel nekazaria izanen litzateke, eta Maria, etxeoandrea.**

1924ko erroldan agertzen zaizkigun lekunberriarren batezbesteko adina 28,54 urtekoa da. Alegia, duela ehun urteko Lekunberri oso gaztea zen. Izan ere, 18 urte baino gutxiagoko 235 haur zeuden erroldaturik, biz-

tanle guztien % 35,39. Dударik gabe, haurrez bete-beteak egonen ziren Lekunberriko karrikak garai hartan. 1924ko populazio piramideari begiratuz gero, argi ikusten da belaunaldi gazteagoen pisu handi hori. Era be-

rean, ikusten da nola 50-54 urtekoen artean baden urritze nabarmen bat. 1870 eta 1874 urteen artean jaio ziren haiek; hau da, Bigarren Karlistaldian. Gerrak eragina izan zuen, beraz, jaiotzeen gutxitzean.



Erroldako lekunberriarrik gazteena hilabete eskas bateko **Luis María Lorenzo Bermejo** da, Iruñetik ailegatu berria zen telegrafista madrildar baten laugarren haurra. Zaharrena, berriz, **Francisca Marculeta** da, 90 urtekoa, **Agustin Gastesi Aguirrezabala** aguazilaren etxean ostatu hartuta bizi zena. Marculeta Lehen Karlistaldiaren garaian jaioa zen. 80-89 urte bitartekoak bost pertsona baino ez ziren 1924an, eta 70-79 urtekoak, hogeitau. Gaur egungo piramide oso bestelakoa da, 70 urte baino gehiagoko 180 biztanle inguru bizi baitira Lekunberri.

96 senar-emazte zeuden Lekunberri 1924an. Hau da, biztanle guztien % 29 ezkontuta zegoen. Gehienetan gizona zen zaharagoa; eta senar eta emazteen arteko adin aldea 3,32 urtekoa zen batez beste, gizonen alde. Adin alderik handiena **Antonio Goicoechea Jaunsaras** eta **Maria Asunción Miquelarena Armona** senar-emazteen artekoa zen. Gizonak 52 urte zituen, eta emakumeak, 32. Miquelarena Argentinako Rosarion jaioa zen, portzierto.

Azterketa hau egiterakoan asmatu ditugun Miguel Echarri eta Maria Zubeldia lekunberriarrik elkarrekin

*“1924ko erroldan agertzen zaizkigun lekunberriarren batezbesteko adina 28,54 urtekoa da”*

*“Gehien-gehienak sortzez nafarrak”*

ezkontuta baleude, batezbestekoei kasu eginda, gizonak 48 urte izanen litzuke, eta emakumeak, 45. Hiru seme-alaba izanen litzukete, gainera: Josefa (17 urteko etxeoandrea), Manuel (14ko nekazaria) eta Juana (12ko ikaslea).

Erroldan agertzen diren egiazko 96 bikoteetatik 92tan emakumeak “etxeo lanak” egiten ditu (sus labores, jatorrizkoan). Horrela markaturik ez dauden lau emakumeetatik hiruk beren senarren ogibide berdina dute: tratularia, dendaria eta nekazaria. Azken hori baliteke datu biltzailearen akatsa izatea, errolda osoan emakume bakarra baita horrela izendatua. Etxekoandrea

ez zen laugarren emakumea **Manuela Cavodevilla Loidi** maistra oltzatarra zen, ordurako Lekunberri 11 urte zeramatzana.

Erroldak dakarren akats bat aipatu dugu. Baina, zoritxarrez, ez da bakarra. Batzuk aurkitzen errazak izan dira. Adibidez, **Emilio Acebo Pando** denda saltzaile asturiarra apopilo gisa ageri da **Joaquina Aizpurua Ochotorena** neskazahararen etxean. Baina **Juan Bautista Oquiñena Azpiroz** dendariaren etxean ere badago erroldatua. Hau da, bi aldiz agertzen da zentsuan. Akatsaz oharturik, behin bakarrik zenbatu dut Acebo.

Baina beste batzuetan akatsak ez dira zuzentzen hain errazak izan. Esate baterako, ez da gutxitan gertatu, erroldako datuen arabera, pertsona batek udalerrian erroldatuta emandako urteak munduan bizitzen emandakoak baino gehiago izatea. Halakoetan bere inguruko pertsonen datuekin konparazioa eginez saiatu naiz benetako adina asmatzen. Dena dela, ez dut uste halako akatsek batezbestekoetan eragin handirik izan dutenik.

Azterketarekin jarraituz, aipa de-

**NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA  
ARLOETAKO HORNIGAIK  
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA**

**URZUBI S.A.**

Tel. 948 50 42 41  
Fax 948 60 45 20

Lekunberri  
urzubi@hotmail.com

**TAXI SOROA**

609 168 217

Bederatzi plaza

**CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ S.L.**

ZURGINTZA OROKORRA

INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI

Telefonoa eta Faxa: 948507343

carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

**aseguru gintza XXI**

**ASEGURU AHOLKULARIAK**

Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da

► aseguruak@aseguruak.eus

► 943 65 22 20

► Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa

**HOSTAL BETELU**

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak

Erreserbak:  
948 51 30 26 - 663 97 67 09

**ALIPROX**

Lekunberri janaridenda


hamabostaldiro eskaintza bereziak

**OTXOTORENA okindegia**

ARRIBE

ADIII TLF BERRIA:  
948 51 30 32

## Lekunberriko populazio piramidea



zagun 28 alargun agertzen direla erroldan, 18 emakume eta 10 gizon. Alargunik gazteena Mercedes Solana izenekoa da, 31 urtekoa. Izenaren ondoan, parentesi artean, "Isasiren alarguna" du zehaztua. Sortzez Valmasedakoa (Bizkaia) zen, bi hilabete baino ez ziren Iruñetik Lekunberri mugitu zela, Amalia bere alabarekin bizi zen eta bere ogibidea "errentaduna" izatea zen (*rentista*); halako ogibidea markatua duen emakume bakarra da.

### 34 zerbitzari

Egoera zibilaren ondoren, erroldak zehazten du zein harreman duen etxebizitza bakoitzeko bizilagunetako bakoitzak familiaburuarekin: emaztea den, semea edo alaba, arreba, ama politikoa, iloba, apopiloa... Lotura familiarrez aparte, badira 34 pertsona zerbitzari bezala sailkatuak (sirviente): 21 emakume eta 13 gizon, 14 eta 62 urte bitartekoak. Zerrendan gazteena Lorenza Apezteguia Goicoechea da; eta zaharrena, Miguel Garbisu Errazquin.

Emakume zerbitzarien kasuan, ogibidea zehazteko gelaxkan, zerbitzari hitza agertu ohi da berriz. Aitzitik, gizonezkoen kasuan, ez dira gutxi beren nagusien ogibide bera dutenak: zapataria, zurgina, igeltseroa... Pentsa daiteke etxe batean zerbitzari bat baino gehiago egoteak esan nahi duela etxe horretan ez zitzaizela dirudik falta izaneren. 1924an, Lekun-

berriko hiru etxetan hiruna zerbitzari zituzten, eta beste batean, lau. Azken etxe hori Zacarias Irañeta Astiz alargun gaztearena zen. Erroldak dio Irañeta nekazaria zela, baina horrekin ezin jakin lur jabe handia zen ala beste askoren tamainakoa.

Erroldak ematen digun hurrengo datua ez da nolana hiko, biztanleetako bakoitzak irakurtzen eta idazten ba ote zekien zehazten baitu. Analfabetismo tasa helduen artean begiratzen da, ez haurren artean, eta batzuen zein besteen arteko muga ikergai honetan 10 urtetan jarri ohi da. Bada, 1924ko erroldari kasu eginez gero, garai hartan Lekunberri 10 urte baino gehiagoko 74 pertsona analfabetoak ziren, populazio osoaren %11. Estudioek diote 1920an Espainiako analfabeto helduak populazio osoaren %32,62 zirela. Beraz, Lekunberriko datua askoz ere hobea zen. Gainera, aipatzekoa da irakurtzen eta idazten ez zekiten gehienak nahiko helduak zirela. Hori bai, bazeuden 11 eta 18 urte bitarteko sei analfabeto eta nahiko posible da horiek halaxe ailegatu izana XX. mendearen azken laurdenera.

### Gehien-gehienak sortzez nafarrak

Lekunberri 1924an erroldaturik zeuden pertsona gehienak Lekunberri berean edo Larraungo beste herriren batean jaioak ziren: 461, biztanle guztien % 69,43. Eta beste puka handi batekoak Nafarroako beste tokiren batean jaioak ziren: 158, biz-

*"Emakume zerbitzariak %88,24 dira"*

*"Populazio piramideari begiratu gero, argi ikusten da belaunaldi gazteagoen pisu handi hori"*

tanle guztien % 23,8. Hau da, hamar lekunberriarretik bederatzi baino gehiago Nafarroa Garaian sortuak ziren (% 93,23).

Larraundik kanpo jaiotako nafarren artean zatirik handiena Iruñekoa zen: 24 biztanle (Lekunberriko guztien % 3,61). Bigarren handiena, Basaburukoa: 14 biztanle (% 2,11). Baina basaburukoei Larraunekin muga egiten duten gainontzeko udalerritakoak gehituz gero: 54 biztanle (% 8,13).

Alegia, gutxi ziren Lekunberri oso urrutiko jaiotako lekunberriarrak. Bazeuden Argentinako lau: Jose Bernardo Miquelarena Mutuverria eta Vicenta Armasa Urrizaren seme-alaba zaharrenak (Feliciana, Angela eta Valentin, General Guido hirian jaioak) eta arestian aipatu dugun beste Miquelarena bat (Rosarion jaioa). Espainiatik, berriz, 23 ziren Lekunberriaratu

zirenak: hiru etxeokandere, bi guardia zibil (beste hirurak nafarrak ziren) eta horietako batzuen emazteak eta seme-alabak, bi jorنالari, bi nekazari, trenbideko langile bat, maisua eta bere arreba txikia, elektrikari bat eta bere seme txikia, dendari eta denda saltzaile bana, sastre bat, eta notarioa.

Garai hartako lekunberriarren lanbideak aipatzen hasi garela, esan dezagun haur eskolatu gabeak (69) edo eskolatuak (101) kenduta (% 26,6 dena) "etxeok lanak" (sus labores) bezala azalduz delako lanbiderik ohi-koena. 225 emakume daude halako moduan markaturik (biztanle guztien % 33,89; emakume langile guztien % 88,24). Gainontzeko emakumeen artean badira hamabost zerbitzari, goi mailako ikasketen hiru estudiante, hiru modista eta jostun bat, bi dendari eta saltzaile bat, errentadun bat, tratulari bat, nekazari bat, maistra eta lanbidearen gelaxkan "bere sexua" (su sexo, jatorrizkoan) harrigarria markatua duena: 19 urteko Manolita Garralda Goldaracena.

Gizonezkoen lanbideen artean bada aniztasun handiagoa. 122 nekazari daude, eta 8 jorنالari. Horixe da lanbiderik kopurutsuena (gizon langile guztien % 54,39). Baina badira 17 dendari, 11 zurgin, goi mailako ikasketen 8 estudiante (horien erdia apaizgaiak), 7 zapataria, 5 igeltsero eta 4 kaminero; eta beste hogeita hamar lanbide ezberdinetakoak.

**CONSTRUCCIONES ERAIKUNTZAK URANGA/SAIGÓS, S.L.**

TEILATUAK  
FATXADAK  
ERAIKINEN ZAHARBERRITZEA

665 708 683  
Lekunberri

**Construcciones Gañarbe**

ERREABILITAZIOAK  
IGELTSERITZA  
FATXADAK  
TEILATUAK

Oztegin kalea 2, Lekunberri 616 457 540  
construccionesganarbe@gmail.com 636 827 846

**KOTXERA**  
Taberna Jatorria Brasa

**Antzonia**  
BASERRIKO GAZTA

948 513 468  
www.antzonia.com  
Uztegi (Araitza)

**NEKAZARI, S.L.**

Kubota  
STIHL

Olagain. Mugiro. Nafarroa  
Tel.: 948504128  
Fax: 948504377  
nekazarisl@hotmail.com

ANTONIO CARRARO

**Iñigo Garaioa MARGOLARIA**

696 658 288  
LEKUNBERRI

**OGI-BERRI ALTZA**

Aralar kalea, 41  
Lekunberri

OGI BERRI  
OKIN ARTISAUAK 948604884

**TAXILON**

661 202 249  
(9 plaza)

Lontxo Otamendi Artola  
Atallu - Araitz  
E-posta: lotamendi5@gmail.com



### ▶ 6.200€ BILDU DIRA DANA EKAITZAREN KALTETUENTZAKO

Larraungo eta Lekunberriko udalek antolatutako diru-bilketak emaitza bikainak lortu ditu. Valentziako DANA ekaitzak eragindako gatazken aurrean, herritarren elkartasunari eta laguntzeko prestutasunari esker, guztira 6.200 euro bildu dira kaltetuei laguntzeko. Gure komunitateko biztanleen arteko elkarlana adierazgarria izan da, eta bi udalek haien esker ona adierazi nahi diete herritarrei, haien laguntza eta konpromisoagatik.

12



### ▶ ASTITZ ETA ODERIZKO GAU ESKORTEI BURUZKO BIDEOA YOUTUBEN

Ondare Kultur Taldeak bideo interesgarri bat plazaratu du, bertan Fermin Leizaola, Etnografia Saileko zuzendaria eta ondare materialean adituak, Astitz eta Oderizko gau eskortei buruzko azalpen sakon eta zehatzak eskaintzen ditu. Horrela, tradizio kultural hauen garrantzia eta testuingurua azaltzen dira, betidanik Nafarroako ondarearen parte izan diren praktikak ulertzeko.

-Bideoa YouTubean ikusi dezakezu:  
<https://labur.eus/o2GaT>



### ▶ ARGAZKI ETA GABONETAKO ARGIEI SARIAK BANATU DIRA

Urtarrilaren 5ean, Gabari Gune Irekian, Argazki eta Gabonetako Argiegi Lehiaketako irabazleei sariak banatu zitzaizkien. Argazki Lehiaketako irudiekin haraneko egutegia osatu eta dagoeneko etxeetan banatu da. Gabonetako Argiegi Lehiaketan ordea, hauek izan ziren kategoria desberdinetako irabazleak:

- ▶ Merkataritza: Maite Zubillaga Beunza.
- ▶ Etxea: Koro Barea Unzueta.
- ▶ Etxebizitza: Carla Cueva Aldaz.



### ▶ BOLUNTARIO IZAN NAHI?

Urtarrilaren 14an egin zen "Boluntario izan nahi?" bilera irekia. 5 herritar eta 4 antolatzaile bertaratu ziren. Bakoitzak bere iritziak eta ekarpenak partekatze aukera izan zuen, eta giro ederra sortu zen. Gainera, proiektuen inguruko ikuspegiak azaldu eta antolakuntza hobetzeko proposamenak aurkeztu zituzten. Bigarren bilera irekia otsailaren 25ean egingen da, Lekunberriko batzar aretoan. Antolatzaileek asko eskertzen dute bertaratu ziren herritarren laguntza, elkarlanari esker ekimen berriak martxan jartzeko ezinbesteko delako.

13

### "BAKANA (I)", GORKA URBIZUREN EP BERRIA, PLATAFORMA GUZTIETAN ENTZUN DAITEKE

*Blue Monday*, urteko egunik tristeena omen den egunez, EP urdin bat kaleratu du Gorka Urbizuk: Bakan (I). Birako kontzertuetara joaten ari den jende guztiari egindako oparitxoa dela adierazi du abeslariak. Horrela, taldeak zuzenean jotzen dituen bi kantu biltzen ditu: "Herri Txiki" eta "Etorkizuna Ginenean" (feat. Gorka Leihotikan).

Bakane (I) "ezohikoa", "singularra" edo "apartekoa" esan nahi du, eta formatu fisikoan lortu nahi baduzu, 7 hazbeteko binilo-edizio mugatua, martxorako espero da. Erreserbak [www.gorkaurbizu.eus](http://www.gorkaurbizu.eus) webgunean egin daitezke.

Gainera, Herri Txikiren bideoa ere ikus daiteke, Teatre de Ca l'Erlen emandako kontzertuan grabatutako irudiekin:  
<https://labur.eus/SP4iP>

### EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNEKO PRESTAKETAK MARTXAN DIRA

Urtarrileko azken astean, Lekunberriko Txikiparken, Larraungo Ibarreko Berdintasun Mahaia antolatutako bilera irekia gauzatu zen. Bertan, Emakumeen Nazioarteko Egunaren inguruko jarduerak diseinatzeko lehen urratsak eman ziren. Bilera irekia eta parte-hartzailea izan zen eta gaur egungo egoera hobetzen jarraitzeko beharrak azaleratu ziren. Bilera hartan bildu eta onartu ziren ekarpenak martxoaren 8an bermatuko dira. "Prozesu honetan parte hartzea urrats handia da pertsona guztiok berdintasunean bizitzeko eta garatzeko aukera berdina izango ditugun gizarte baterantz", adierazi zuen Berdintasun Mahaia.



## “Musika niretzat behar bat da, abestean zoriontsu naiz”

Lucia Ayestaran Lekunberriko bizilaguna eta Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan (NGMM) kantuko irakaslea da. Bere ibilbide profesionalean, arte lirikoaren munduan murgildu zen eta gaur egun, ahotsaren magia eta teknika transmititzen dizkie adin desberdinetako ikasleei. Bere historia haurra zenean hasi zen, bere amaren bultzadari esker.



Lucia Ayestaran. Arg.: Lucia Ayestaran

### Noiz hasi zen zure musikarekiko interesa?

Zortzi urterekin hasi nintzen Iruñeko Joaquín Maya musika eskolan gurasoen bultzadari esker. Lehenengo, biola ikasten hasi eta 14 urterekin kontserbatorioan sartu nintzen. Han hiru urte eman nituen, ondoren, proba bat gainditu eta zuzenean kantuan hasi nintzen, nire ahizparen pausoak jarraituz.

“Abesten dudanean sentsazio berezi bat sentitzen dut”

“Nire gustu musikala oso zabala da, eta denborarekin asko aldatu da”

Geroago, Goi-mailako kantu lirikoko ikasketak osatu nituen eta bertan, kantua, hizkuntzen fonetika, antzezlan, historia, analisia, etab. landu nituen.

### Instrumenturik jotzen duzu?

Biola 8 urtez jo nuen, baina aspaldi utzi nuen alde batera. Horretaz gain, pianoaren oinarriak irakatsi dizkirate kontserbatorioan eta nire kabuz gitarra pixka bat jotzen dut, baina oraintxe abestearekin nahikoa. Azken aldian, euskal folkloreatatik interes handi eta berezia sentitu dut, eta orain Master Amaierako Lana horren inguruan egiten ari naiz. Ondorioz, noizbait txistua jotzen ikastea gustatuko litzaidake, izan ere gure kulturako instrumentuetako bat da.

### Baduzu musikari gustukorik?

Gaur egun, batez ere operako abeslari desberdinak entzuten ditut: Mirella Freni, Joan Sutherland, Lea Desandre, Maria Callas edo Pavarotti, beste askoren artean. Nik kantu lirikoa ikasten dut eta bertan genero desberdinak daude: alde batetik, opera, eta, beste aldetik, musika zaharra, oratorioa eta kontzertuetako kantak.

Musika euskaldunari dagokionez, batez ere, Gatibu, Berri Txarrak eta Mikel Urdangarin gustuko ditut, gaztetan Ken Zazpi ere bai. Bestalde, Adele, Extremoduro, Ed Sheeran, Zaz, Estopa, Eminem, Laura Pausini etab. asko entzun izan ditut. Nire gustu musikala oso zabala da eta denborarekin asko aldatu da.

### Orain, kontserbatorioko irakasle zara...

Bai, irakasle izatea asko gustatzen zait, batez ere ikasleek beren barruko ahotsa loratzea lortzen dutenean; izan ere, traba eta oztopo ugari jartzen dizkiogu ahotsari eta filtrorik gabe erabiltzean liriko bilakatze da, ahots purua.

### Eta zure ikasleak?

Bertako ikasle guztiak adin nagusi-koak dira, batxilergoa edo goi-mailako zikloa amaitu ostean bertan sartzen direnak. Haien adina 18-25 urte ingurukoa izan ohi da, baina 35-40 urte ingurukoak ere badaude. Nire ikuspuntutik, ikasgaiak asko baldintzatzen du ikasleen adina, kantuko ikasleak helduagoak izatea da ohikoena, erdi-mailako ikasketak ahots aldaketa guztiz gauzatu denean hasten baitituzte, 16 urterekin gutxi gorabehera, eta erdi-mailan 6 urte inguru pasatzea da ohikoena.

### Kontzertuak ematen dituzue?

Bai, kontserbatorioan instrumentu asko daude, kantua horien artean, eta irakasle gehienek antolatzen dituzte kontzertuak. Batzuetan bi irakasle edo gehiago elkartzeko dira, beste batzuetan, berriz, bakarka. Kantuan, bi kontzertu garrantzitsu izaten dira: urtea amaitu baino lehen eta bestea maiatz inguruan. Aipagarria da irekiak eta doan izaten direla, edonor joan daiteke kontserbatoriora ikustera. Gainera, kolaborazioak ere egiten dira unibertsitateekin, Gazteluko plazako

“Musika uztea niretzat ez da aukera bat”

kasino berrian, Gayarren edo Condes-tablean, adibidez.

### Musika onuragarria dela uste duzu?

Bai, musika niretzat behar bat da, abestean zoriontsu naiz. Oroitzen naiz ikasketak amaitu nituenean, Madriletik Lekunberriera bueltatzean, musikaren mundutik aldentu nintzela eta informatikako irakasle hasi nintzela Donostian. Egia esan, abesteko oso mugatzaileak diren osasun arazoak ditut eta une hartan, musikaren mundua alde batera uztea erabaki nuen, baina zerbait falta zitzaidala nabaritzen nuen. Eta orduan konturatu nintzen... musika uztea niretzat ez da aukera bat. Izan ere, abesten dudanean sentsazio berezi bat sentitzen dut. Benetan hunkitzen nau eta besteekin partekatzea gustatzen zait. Orain ez naiz oholtza gainera igotzen ia, baina lehen bai, eta oso berezi sentitzen nintzen, sorginduta. “Musikaren kanala” izatea oso berezia da niretzat, “Flow” sentsazio hori harrigarria da.

### Eta Lekunberri osatu nahi zenuen abesbatza...

Abesbatzaren kontua alde batera utzi nuen nire egoera pertsonalengatik. Egia esan, etorkizunean proiektua garatzea gustatuko litzai-



Lucia oholtza gainean abesten. Arg.: Lucia Ayestaran



Arg.: Lucia Ayestaran



Arg.: Lucia Ayestaran

“Traba eta oztopo ugari jartzen dizkiogu ahotsari”

dake, herri talde bat sortzea; bertako bizilagunak elkartzeko, mundu erreala ez ahazteko eta gazteen artean zerbait berezia sortzeko. Herriarrak pausoa ematera animatzen ditut, baina aurrerago, noski.

**IORTIA** CLÍNICA DENTAL - HORTZALUNA

Vanessa de Abreu Perdomo - Odontologoa Kol. Zk. 740

Lekunberri: 948 604 804 - 618 818 005  
Aizasu: 948 467 603 - 667 661 769

ODONTOLOGIA OROKORRA - INPLANTEAK -  
ORTODONTZIA - HORTZ-ESTETIKA - PADI

**aitz berri**

edertasun zentroa

Lako beikoa  
Betelu 31890  
696 732 290  
aitzberri@hotmail.com

He-apaindegia  
Estetika  
Presoterapia  
Podologoa  
Laser-depilazioa eta  
depilazio elektrikoa  
Dietista-nutrizionista  
Mikropigmentazioa ezpainen  
Mikroblading bekainetan





## Zuri-beltza

Ez, ale honetako azala ez da maketazio arazoa izan, ez eta inprenta arazoa ere. Zuriz utzi dugu hilabete honetako Mailope, bere egoeraren antonimo gisan; izan ere, beltza da Mailoperen egoera. Urte grisak bizi izan ditugu 35 urte hauetan, baina beti beltzetik gertuago, zuritik baino. Zenbat ekimen aldizkari polit honi arnas pixka bat emateko: Mailope korrika, kakaplasta, kontzertuak... Azken urteotan ordea produkzio kostuak ikaragarri igo eta egoera iluntzen joan da, beltzaren paletera iritsi arte. Kitto, Mailoperen zakua hustu da.

Mailope, Araitz-Betelu, Larraun eta Lekunberriko 1600 etxeetara bidaltzen da, doan, hilabetero. "Etxe bat, bazkide bat", hori zen gure leloa. Ene, hori egia balitz! Gaur egun 251 bazkide ditugu, 251 bazkide zoragarri, baina ez dira nahikoak. Badakigu etxe bakoitzeko bazkide bat lortzea utopia izan litekeela, baina gaur egungoa bikoiztearekin nahikoa genuke egoerari buelta emateko. Banatzen den etxe bakoitzeko, %30eko bazkide kopurua ez da hain utopikoa, ezta?

Eta hemen denok egingo duzuen galdera: zergatik egin bazkide, etxean aldizkaria berdin jasotzen badut? Galdera honi zeuk erantzutea eskatuko dizugu gaur. Zeure buruari galdetzea zer sentitzen duzun aldizkaria postontzian ikusi eta suntuondoko herrietako ihauterietan zer dagoen jakin nahi duzunean; edo zure etxean itoginak agertu eta iturginaren telefono zenbakia behar duzunean. Zer sentitzen duzun zure seme-alaben irria ikustean, zorion agurretan beren argazkia ikusten dutenean. Informazio hori ez du ETB-ek jasoko, ezta Berriak ere. Ohitu gara Mailope hilabetero etxean musu-truk jasotzen. Eta bihar, Mailoperik ez balego?

Egoera gogorrek, erabaki gogorrek hartzea dakarte: 2 hilabetero argitaratu, zuri beltzera bueltatu, bazkideei soilik banatu... asko dira hartu nahi ez genituzkeen erabakiak. Horregatik, lerro hauek idaztera behartuta sentitu gara, bakoitzaren kontzientzia astintzeko; Mailope maite eta estimatzen baduzu, bazkide egiteko eskatuko dizugu, hurrengo hilabeteetan jasotzen ditugun bazkide kopuruak erabakiko baitu Mailoperen etorkizuna. Baditugu ideia eta proposamen berriak, badugu gogoak eta badugu indarra aurrera jarraitzeko. Ea ba, denon artean gaurko letra zuri-beltzak, koloretsu bihurtzen ditugun!

**Mailopeko Zuzendaritza Taldea**



## MAILOPE BAZKIDETZA ORRIA

Izen-abizenak:

Jaiotze data:

NAN zenbakia:

Helbidea:

Telefonoa:

Posta elektronikoa:


Kontu Korronte zenbakia (IBAN barne):

Bazkide izateko 50€ ordaindu behar dira urtean, fitxa bete nahi baduzu, bidali zure datuak:

-Webgunea: <https://mailope.eus/>

-Telefono zenbakia: 638 65 23 39

-Helbide elektronikoa: [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net)



## Uitziko inauteriak, giro ederrean!

Maidar Galartza eta Garazi Soroa izan ziren aurtengo maiordomoak. Aurreko aldaketa-ri jarraituz, aurtengo erronda larunbatean egin zuten, bi eguneko ospakizuna osatuz. Eguraldi kaxkarrari aurre eginez ederki ospatu zuten errondaren osteko festa, eta horrela, borobildu zuten eguna elkartean. Igandea berriz, lasaiagoa izan zen, gosari eta bazkariarekin eguna eta aurtengo lehen inauteriak amaitu ziren.



Argazkiak: Eider Martirena



## Txotx garaia martxan da

Nafarroako ekoizleek Madotzen, Perkatzenea sagardotegian ospatu zuten aurtengo irekiera. Juanjo Oroz, Kern Pharmako kirol zuzendariak, eman dio hasiera gurpil gainean abiatzen den kanpaina berriari, eta ordudanik, Aldazko Martitxonea, Oderizko Juanluzenea eta Lekunberriko Toki Alai sagardotegiek ere ekin diote denboraldiari. Ateak irekitzerako, herritarrek gogoz ekin die txotx ondoko ohiturei. Asteburuetako zerrendak ia beteta dauzkate jada; beraz, joan nahi duenak bizkor ibili beharko du bazkaltzeko edo afaltzeko toki hartzeko.




Perkatzenea sagardotegian ospatu zen sagardo denboraldiko zabalera. Argazkia: Iñaki Porto



Perkatzenea txuletak prestatzen.  
Argazkia: Iñaki Porto



Aldazko sagardotegiko txuletak.  
Argazkia: Bingen Begiristain



**Albaitaritza**  
baserriarren  
zerbitzura

Akaborro Ind., 31860 Iruztzun  
www.albaitaritza.com · 948 500 343

SAGARDOTEGIKO MENUA  
Urtarriletik maiatzera  
Ostiral gau eta asteburuetan

**JUANLUZENEA**  
SAGARDOTEGIA  
948 604 571 - ODERITZ

**Martitxonea**  
sagardotegia  
Inaxio Begiristain

Aldatz  
Nafarroa

948604607

## Plazaola Partzuergo Turistikoak 30. urteurrena ospatu du

Urtarrilaren 9an, Plazaola Partzuergo Turistikoaren 30. urteurreneko ekitaldia ospatu zen Larraungo udaletxeko Gabari Gune Irekian. Bertan, 80 lagun inguru bildu ziren, tartean zonaldeko udal ordezkariak, kide pribatuak eta turismo-sektoreko eragileak. Jardunaldia Plazaolako bide berdean egindako bisita gidatu batekin hasi zen, eta ondoren Aralar Musika Eskolako abesbatzak ongietorria eman zien gonbidatuei. Ekitaldi nagusian, Arkaitz Goikoetxeak partzuergoaren 30 urteko bidea errepasatu zuen, eta baita bideo oroigarri bat aurkeztu ere. Mahai-ingurua eta Lorena Arangoaren bakarrizketa barregarria izan ziren arratsaldeko momentu berezietakoak. Amaieran, proiektuaren hastapenetan sinetsi zuten pertsonei omenaldia egin zitzaizkien, eta Rebeca Esnaola sailburuak jardunaldia itxi zuen.



Plazaola Partzuergo Turistikoak 30. urteurrena



Plazaolako bide berdean egindako bisita gidatua



Aralar Musika Eskolako abesbatzak ongietorria ematen gonbidatuei

## Ostots kooperatibak eguzki-energiaren aldeko lehen urratsak eman ditu

Araizko bailaran energia-proiektuak bertan sortu eta kudeatzeko herritar kooperatiba sortu dute, Ostots. Orain arte kooperatiba sortzen jarri dituzte indarrak eta dagoeneko paper lan guztiak eginak dituzte. Kooperatibaren aurreneko proiektuak izango dira eguzki plaken bitartez argindarra sortzea. Aurten bi teiltutan jarri nahi dituzte plakak, Araizko udaletxean eta Uztegiako frontoian. Bigarren teiltatu honetako plakak Uztegi, Gaintza eta Intzako bazkideen onurarako izango dira. Goi herrietan ez dira bazkide asko eta eskertuko lukete jende gehiago animatuko balitz herritarrek etxeetan kontsumitu ahal izango duten energia eurekin sortzera, era horretan instalakuntza bideragarriagoa izango litzateke denentzako. Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzak zabaldu berri dira eta bi proiektuak bertara aurkezteko asmoa dute. Informazio gehiagorako bisitatu ostots.eus webgunea, idatzi whatsapp/telegram bidez 717.708.828 telefono zenbakira edo [info@ostots.eus](mailto:info@ostots.eus) helbidera.



## Go!azen aurre estreinaldia Araizko liburutegian

Araizko Udala UEMAko kidea denez, eta UEMA eta EITBk egindako hitzarmenari esker, aurre estreinaldia emateko aukeratutako udalerrietako bat izan zen Araiz. Ondorioz, azaroaren 15ean, Go!azen telesail-musikal arrakastatsuen 11. denboraldiko lehen atalaren aurre estreinaldia izan zen Araizko Liburutegian.

## KIROLA

### Egoitz Carrion eta Itxaro Zabaleta Gabari Gune Irekian

Ttutturre Kirol Elkarteak urtarrilaren 31n hitzaldi berezia antolatu zuen Gabari Gune Irekian, mendia eta osasuna irizpide izanik. Bertan, Egoitz Carrion mendizaleak, mendia, osasuna eta egoera fisikoaren hobekuntzari buruz hitz egin zuen, eta Itxaro Zabaleta nutrizionistak, elikadura osasuntsuaren garrantzia azpimarratu zuen energiaren beteriko hitzaldian. Ekitaldia Ttutturre Kirol Elkarteak, Kirolmank, Lekunberri eta Larraungo kultur sailak eta Gabari Gune Irekiak antolatu zuten, eta bertaratutakoek informazio interesgarria jaso zuten kirola eta bizimodu osasuntsua uztartzeko.



Egoitz Carrion



Itxaro Zabaleta. Argazkia: Bioziklik



Imanol Jaka Snowrunning lasterketan

### Snowrunning, mendi elurretako lasterketa bizia

Urtarrilaren 18an, larunbatez, Belaguako Kontienda inguruan Snowrunning lasterketa gauzatu zen, Espainiako eta Nafarroako txapelketak barne hartuz. 12,92 km-ko ibilbide elurtuan, korrikalari trebeek erronka gogorari aurre egin zioten. Imanol Jaka, Etxarrikoa eta Goiztiarrak MLT taldeko lasterkaria, Nafarroako beterrano B mailan bigarren postua eskuratu zuen, 1:35:39 denbora eginez. Kategoria honetan, Noé Fernández Fernández (Tipitapa Trail Taldea) izan zen irabazlea, 1:17:42ko denborarekin. Podiuma osatuz, Oscar Sanz de Acedo Pollan (Club Hiru Herri Atletiko Taldea) hirugarren izan zen.

## MOTZ-MOTZEAN

KOLDO NUÑEZ

### Ehun urte zentzuz betetzeko bide bat

Nire aita zenak aurten ehun urte jaiotzen zirela eta duela 25 urte joan zitzaigun. Maiz hausnartu dut zein izan zen bere bizitzaren zentzua. Maisu handia izan zen niretzat. Bere oinen gainean egoten jakiten zuten gehienetan eta, horrela, pentsamendu kritikoa garatzen irakatsi zidan.

Estatu Batuetan egon naiz berriz aurten, urtarrilean, eta Lisa eta biok aprobetxatu dugu ehun urte dituen Sue G. bisitatu eta gustukoak dituen besarkadak elkarri emateko. Osasunez eta buruz oso ongi dago. Bakarrik bizi bada bere etxean, semea du beti gertu edozertarako. Honek lagunduta, astero erosketak egiten ditu, eta, besteak beste, bi astetan behin ilea-paindegira joaten da. Bere hitzetan, luze bizitzeko formula hau da: osasuntsu elikatu, egunero ariketa fisiko lasaia, burua aktibo mantendu eta jarrera positiboa izan bizitzan. Egunero bere jana sukaldatuz gain, puzzleak egin, libururen bat irakurri eta gorputza lantzen du errutina bat segituz. Berak bizitzari zentzua aurkitu zion besteei poza ekartzen eta jubilatzean zela pailazo egin zen Sue. Barreak sortzeko berezko doakia zuenez gero, hamarkadak eman zituen jendea alaitzen. Nik, gainera, beste balore personal bat aurkitzen diot, alegia, bere burua entzuten ikasi du guztiaren gainetik. Hau da, apaltasunez pentsamendu kritikoa landu du eta ez dio inori bere buruaren jabetza hartzen uzten maistra handia den Sue.



## “Erremontean, tentsioa kudeatzea funtsezkoa da”

*Hernaniko Galarreta pilotalekuan jokaturako aurtengo finaleran, Kemen Aldabe lekunberriarrak eta Xabier Azpiroz uitziarrek erremontean beste lorpen handi bat lortu zuten. Azpiroz eta Josetxo Ezkurra II.ak Binakako Erremonte Txapelketa Nagusia irabazi zuten, eta Aldabe eta Aiestaran VI.ak, berriz, bigarren mailako txapelak eskuratu zituzten. Bi erremontista gazteek euren kirol maila erakustez gain, Galarretako frontoia bete zuten, izan ere, 1.500 lagun bertaratu ziren finala ikustera.*

### Nola murgildu zineten erremonte munduan?

**Kemen:** 15 urte nituela hasi nintzen erremontean. Oroitzen naiz goizueta batek ireki zuela Lekunberriko erremonte eskola, eta nire kuadrillakoak bertan

apuntatu ziren. Hasieran, ni ez nintzen animatu, baina besteak gehiago jokatzen hasi zirela ikusi nuenean, probatzera gerturatu eta azkar harrapatu nion trukoa kirolari. Harrezkerotik, hemen txenago, erremontean gozatzen.



Kemen Aldabe eta Xabier Azpiroz

**Xabier:** Ni Iruñean hasi nintzen, 18-19 urterekin. Futbolaz gain, beste zerbait probatu nahi nuen, eta banekien nire kuadrillako askok ere kirol hau praktikatzen zutela. Hori ikusita, erremontean hasi nintzen

### Nola prestatu zineten Galarretako finalerako?

**Kemen:** Prestakuntza aldetik, nik uste dut urte askotako lana dela. Hori ez da aste batetik bestera lortzen. Hasieratik hobetzen joatea da gakoa, eta ondoren, joko maila on batean egonda, txapelketa ona egiteko aukera izatea garrantzitsua da. Azkeneko asteetan, nire ustez, ez da gauza berezirik egin behar, entrenatzen jarraitu eta finala irabazi.

*“Egun osoko tentsioa azkeneko tantoa egiterakoan askatzen da, eta hori oso pozgarria da”*

Kemen Aldabe

*“Nire une gustukoenetako bat ikasleen goxotasun hori nabaritzea izan zen”*

Xabier Azpiroz

### Zein une izan zen erabakigarria Galarretako finala irabazteko?

**Xabier:** Bueno, nire ustez, unea baino gehiago, bikotea izan zen erabakigarria. Josetxo Ezkurrekin oso ongi moldatzen naiz, eta hori oso garrantzitsua da: inolako arazorik gabe bata bestearekin hitz egitea, aholkatzea, oihukatzea eta elkar ulertzea ezinbestekoa izan zen.

### Zer esan nahi du garaipen honek zuentzat?

**Kemen:** Bueno, irabaztea beti pozgarria da. Gainera, horrelako egunetan

frontoian jende asko egoten da. Hainbeste jende egonda, urduritasunak gora egiten du, eta momentuak oso bereziak izaten dira. Egun osoko tentsioa azkeneko tantoa egiterakoan askatzen da, eta hori oso pozgarria da. Momentu horretan zoriontsu sentitzen zara.

**Xabier:** Kemenekin ados nago. Hasieran ongi sartu nintzen frontoira, baina berehala urduri sentitu nintzen, nire ikasleak lehenengo ilaran ikusi nitueanean batez ere. La klase guztia joan zen! Ondorioz, azkeneko tantoan sentimendu guztiak askatu nituen. Zoragarria izan zen.

### Nola lasaitzen zarete tanto zail batean?

**Kemen:** Hori berezkoa izan behar dela uste dut. Badago jendea horretarako balio duena, eta beste batzuek, berriz, ez dugu hainbeste balio. Adibide argi bat Urriza dela iruditzen zait: momentu jakinetan beti berak ateratzen ditu tantoak. Momentu klabe horietan beti ongi eta tinko jokatzen du. Beste batzuei pixka bat gehiago kostatzen zaigu, baina saiatzen gara.

**Xabier:** Bai, ni ere ez naiz oso abila lasaitasun hori mantentzeko eta nire buruarekin sentitzen dudana frustrazioa oihu baten bidez askatzen dut. Egia da batzuetan lasaitzen naizela, baina gero askotan kostatzen zait erritmoa berriro hartzea.

### Nolakoa izan zen partidua osteko ospakizuna?

**Kemen:** Ba, ona, beti bezala, oso ona! Gainera, honetan jende nahikotxo



Argazkia: Pedro Martinez



Ezkurra II.a eta Azpiroz garaipena ospatzen. Argazkia: Jon Urbe, FOKU

*“Hainbeste jende joan zen gu ikustera... Nolatan ez nintzen hurbildu afarira?”*

Xabier Azpiroz

*“Nire familian beti izan da pilotazalea”*

Kemen Aldabe

biltzea lortu genuen: Lekunberri eta Larraungo 65 gazte inguru joan ginen. Oso ongi afaldu genuen, eta gero bakoitzak bere parranda egin zuen.

**Xabier:** Niri afari horretara ez joatea aurpegiratu zidaten! Hainbeste jende joan zen gu ikustera... Nolatan ez nintzen hurbildu afarira? Ba, egia esan, Hatortxu Rockeko sarrera aspaldi erosi nuen, eta zuzenean hara joan nintzen. Gainera, goizean bertan egon nintzen bokatak egiten, gero partidua jokatu eta ondoren, parranda egitera itzuli nintzen.

### Izan al zen egun hartan beti gogoratuko duzuen zerbait?

**Kemen:** Egun hartako une jakin bat

agian ez, baina erremontista ibilbidetan begirada atzera botatzerakoan, hainbat egun gogoratuko ditugu, eta hau horietako bat izanen da.

**Xabier:** Nire une gustukoenetako bat ikasleen goxotasun hori nabaritzea izan zen, baita hainbeste jende mugitzea ere. Aurreko urtean frontoia 1.500 lagunekin bete zen, eta aurten bigarren urtez bete da. Horrelako leku bat jendez gainezka ikustea eta nolabaiteko ospea sentitzea oroitaraztekoa da.

### Eta familia, lagunak...

**Kemen:** Nire familia beti izan da pilotazalea eta badakit aitari ilusio handia egiten diola ni jokatzen ikusteak, eta Txapela irabazteak are gehiago. Gainera, nire izeba oso zalea da eta amona zenari ere, asko gustatzen zitzaion. Horrek poz handia sortzen dit, ni ongi sentitzea eta haiek ere ongi sentitzea.

**Xabier:** Egia esan, alde horretatik nahiko lotsatia naiz. Ez zait gustatzen familiakoak niregatik kezkatzea, baina babes puntu hori eskaintzen didate. Amak beti animoak eta aholkuak ematen dizkit eta aitak lasaitasuna, eta aldi berean sentitzen duten harrotasuna adierazten didate.



**BACALAO  
ELKANO  
S.L.**

Industrialdea, 11  
31870 Lekunberri - Nafarroa  
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792  
bacalaoselkano@jet.es  
www.bacalaoselkano.com.

Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean  
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta  
14:30etatik 17:00etara

## XVIII. Araitz eta Beteluko kros bizia

Aurtengo XVIII. Araitz eta Beteluko krosean, guztira 204 lasterkarik eman zuten izena, eta horietatik, gure eskualdeko 3 bikote animatu ziren erreleboan parte hartzera. Hurrek ere harrera ona izan zuten, eta 70 partaide izan ziren. Emakumeek parte-hartze nabarmena izan zuten, eta antolakuntzakoek balorazio positiboa egin dute. Nesketan, Izar Amundarain Orbegozo izan zen garaile, mutiletan, Raúl Amatriain Arraiza, kadete nesketan Aintzane Eskamendi eta mutiletan Inhar Pascal. Erreleboetan ordea, Iñigo Gurrea Prados eta Ana Gurrea Prados izan ziren ibarreko garaileak.




Ibarreko gizonen sarituak. Argazkia: Kirolmank



Ibarreko emakumezko sarituak. Argazkia: Kirolmank

ESKUALDEKO NESKAK		
IZEN-ABIZENAK	HERRIA	DENBORA
Izar Amundarain Orbegozo	Arribe	00:31:40
Lorea Burguete Mikeo	Lekunberri	00:33:27
Maddi Sotil Buldain	Betelu	00:34:22
ESKUALDEKO MUTILAK		
IZEN-ABIZENAK	HERRIA	DENBORA
Raúl Amatriain Arraiza	Uitz	00:25:56
Iñigo Lasarte Garcia	Lekunberri	00:25:57
Ander Elizalde Zubillaga	Betelu	00:27:37
Xabier Satrustegi Garcia	Errazkin	00:27:45
Mikel De Carlos Gorria	Lekunberri	00:28:32
Josu Oreja Arratibel	Errazkin	00:29:17
Aitor Etxarri Igoa	Oderitz	00:29:43
Joanes Rekalde Iraizoz	Betelu	00:30:35
Eneko Rekalde Iraizoz	Betelu	00:30:47
Ander Garmendia Otermin	Betelu	00:31:05
Markos Lopetegui Recalde	Betelu	00:31:32
Manex Saralegui Izaguirre	Betelu	00:31:51
Xabier Plazaola Ugarte	Uztegi	00:32:29
Izei Goñi Martinkorena	Errazkin	00:32:55
Iñigo Garmendia Goikoetxea	Betelu	00:33:15
Ander Miqueo Cincunegui	Arribe	00:33:31
Ekaitz Eskamendi Alduntzin	Betelu	00:34:03
Iñaki Elizalde	Betelu	00:34:22
Mattie Garaikoetxea Zubillaga	Betelu	00:34:24
Unai Garmendia	Betelu	00:34:41
Luka Askaray Zubiria	Gaintza	00:35:00
Igor Garmendia	Betelu	00:35:04
Ander Balda Elola	Lekunberri	00:35:16
Xabier Iruirita Rodríguez	Uitz	00:35:42
Igor Nazabal Otamendi	Betelu	00:35:46
Francisco Jose Eskamendi Iriarte	Betelu	00:35:51
Xabier Lasarte Garcia	Lekunberri	00:36:02
Mikel Zubillaga	Betelu	00:37:06
Ander Arraztio Saralegi	Betelu	00:37:06
Andoni Urrestarazi Garmendia	Betelu	00:37:06
Aimar Estanga Arrambarri	Lekunberri	00:37:17
Imanol Estanga Arrizubieta	Lekunberri	00:37:58
Rubén Soria Acarreta	Baraibar	00:38:37
Xanti Garmendia Goikoetxea	Betelu	00:38:43
Francisco Gil Marin	Lekunberri	00:39:04
Mikel Otamendi Ezkurdia	Betelu	00:40:10



Karlos Mitxentorena Arraztoa	Betelu	00:40:10
Unai Otermin Satrustegui	Betelu	00:41:02
Asier Elizalde Zubillaga	Betelu	00:43:08
Pablo Goikoetxea Garralda	Lekunberri	00:47:33

ESKUALDEKO ERRELEBOAK		
IZEN-ABIZENAK	HERRIA	DENBORA
Iñigo Gurrea Prados - Ana Gurrea Prados	Lekunberri	00:37:50
Haizea Goikoetxea Erbiti - Amets Goikoetxea	Betelu	00:39:39
Arantxa Erbiti Beloki - Aitor Goikoetxea Iriarte	Betelu	00:40:41

KADETE NESKAK		
IZEN-ABIZENAK	HERRIA	DENBORA
Aintzane Eskamendi	Betelu	00:13:51
Laida Garmendia	Betelu	00:13:52
Leire Lesxan	Leitza	00:14:55
Izaro Urkiola	Leitza	00:14:55

KADETE MUTILAK		
IZEN-ABIZENAK	HERRIA	DENBORA
Inhar Pascal	Betelu	00:11:27
Hodei Goikoetxea	Betelu	00:11:43
Markel Garmendia	Betelu	00:11:45

## MOTZ-MOTZEAN

LEIRE ARANBURU

### Amaierak

Hitz batzuk esan errazak dira, ohituraz esaten ditugu, esan behar direlako, horretarako direlako, eta hizkuntza zein gizarte guztietan daukate betebeharrak. Ezagun eta ezezagunekin erabiltzen ditugu, egoera eta momentu ezberdinetan. Horietako bat da Agur hitza.

Horren hitz arrunta, horren azalpen simplea daukana, lau letra besterik ez. Denok dakigu hitz honen esanahia, denok dakigu esan gabe adierazten. Baina zenbatetan erabili dugu benetan? Zenbatetan esan dugu sentituz?

Benetako agurrek sortzen duten mina isilean gordetzen dugu. Ez, ez da erreza agur hitza bere esanahi osoarekin erabiltzea, ez da erreza amaierari ongi etorria egitea, batez ere amaiera hori ezustekoan izan denean edo amaiera horretara bultzatzen gure nahiak ukatuz. Aurpegi ona jarri behar gainera, denak duelako amaiera eta onartu beharra dugulako. Ez da erreza amaiera hori guk aukeratu dugunean ere ez. Hartu daiteken erabaki zailenetako bat da. Agur esatean ez delako beste bakarrik gaitzen, norberaren zati bat gaitzen da, handia edo txikia, gure izatearen esentziaren tanta txiki bat dijoa benetako agur bakoitzean. Bizitakoak eta izandakoak, egin gaituenaren oroitzapena.

Tanta hori ordea batzuetan urmael oso baten iturri izan daiteke, barrutik hustutzen gaitu, gure azken malkoraino. Eta ondo dago, ez da ezer gertatzen. Galera galera delako, berdin dio adinak, berdin dio galdutakoaren izateak. Agurra agurra da eta mingarria da. Baina ikasi agurtzen, benetan agur esaten. Haren mina baino min handiagoa sortzen duelako hura ukatzeak.



● Lorea Zulet, psikologoa (Lekunberri)

“Ongizateak hainbeste dauka bere baitan,  
inoiz ez dela amaitzen”

Lekunberriko Lorea Zulet psikologoa ongizatea ardatz duen euskarazko formakuntza-ziklo bat abiarazi zuen 2023an, Lekunberriko Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren babesarekin. Hasieratik, proiektuaren helburua psikologiaren bidez ongizatea lantzea eta horretarako tresna praktikoak erabiltzen ikastea izan da, eta dirudienez, harrera beroa izan du, parte-hartzaileen interesa etengabe handitzen ari baita.



Lorea Zulet



berriz, 30 lagun inguruk parte hartu zuten, eta aurten, hirugarren edizioa dagoeneko 20 parte hartzaile baino gehiagok eman dute izena.

Azken formakuntza saio hauek otsailetik azarora izanen dira, hila-betea behin, ostiraletan 18:00etatik 20:00etara, hala ere ordutegia moldatu daiteke. Hainbat gai landuko dira: dolua, erlaxazioa, atxikimendua, norberaren egoera, gutxiespena eta plazera, besteak beste. Azken gaia Erasoko Itsaso Bakedano sexologoak eta Lekunberriko Ana Gurrea dietistak gidatuko dute ere.

#### Nolako izan da zure esperientzia proiektu guztian zehar?

Oso pozik nago proiektuaren bilakaerarekin. Nabarmen da jendeak saioetan parte hartzen jarraitzen duela eta giro polita osatzen dela. Hala ere, garrantzitsua da argitzea ez

direla terapia saioak, formakuntzak baizik, baina jendeak nahi duena parteka dezake eta giroa oso konfidentziala da.

Horretaz gain, gaiak jorratzerakoan, adinak oso desberdinak dira: gazteenak 25 urte ditu eta helduenak 70. Hori oso aberasgarria da, denek ikuspegi desberdinak eskaintzen dituztelako. Gehienak emakumeak gara, momentuz gizon bakar batek parte hartu du, eta ondorioz, generoari eta beste hainbat gairi buruz hitz egitea oso interesgarria izan da.

#### Zer egin behar da bertan parte hartzeko?

Formakuntza Nafarroako Gobernuko diru-laguntzarekin eta Lekunberriko Udalaren babesarekin finantzatzen da. Gainera, formakuntzak doan dira, Whatsapp talde bat sortu genuen eta bertan informazioa, egutegiak eta bestelako datuak bidaltzen ditugu, edonor sar daiteke bertan. Saio bakoitzeko 20 lagun onartzen dira eta horregatik, gai bakoitzean izena emateko aukera dago, indibidualki. Otsailak 15 izanen da izena emateko azken eguna.

Beraz, Larraun, Lekunberri, Araitz eta Beteluko herritarrak parte hartzera gonbidatu nahi ditut, batez ere gizonetzakoak. Adin eta genero kontuak alde batera utzi behar ditugu, zaintza emozionala lantzea oso garrantzitsua da eta denok gaude ikasteko, beharrezkoak diren tresna horiek guztiontzat dira. Izan ere, ongizateak hainbeste dauka bere baitan, inoiz ez dela amaitzen.

- ▶ Formakuntzak Lekunberriko Udaltzeko Txiki Parkean izanen dira.
- ▶ Whatsapp taldean sartu nahi baduzu, hau da esteka: <https://labur.eus/EBTME>
- ▶ Telefonoz hitz egiteko deitu 676975810 zenbakira.



● Agurtzane Altuna

## Suupillek

Zortziet urteko neskatoa. Zortziun kiloko behi suiza, umean begitaako bintzet. Behie, lasai, belar iarra jaten. Neskatoa, lasai, harri beire. Heldu'a Atte alki ttikie esku'etean ta behi-jezteko baldea bestean dittola.

-“Heldu!”

Neskatoa ganbelan sartu ta paite kontran jarri da. Esku'etekin aarrai eutsi dio, beste eskuekin suupilletatik heldu dio behiei. Behatz lodie sartu dio suur-zulo batean ta bi behatz bestean. Leune da aarra, grixe, arrasto beltz lodi batzakin. Esku bete-beteko aarra. Behatz lodiekin hain zorrotza ez den punte borobildue iurtzitzen pasatze'o denboa neskatoak. Suupillek, berriz, likatsuk. Esponja bustiet zanpatzea bezalakoa da. Mutur zabal-zabala izaten due behiek; ia-ia zabaleie ume-esku ttikikin tenaza itteko.

Behiek bi pauso aurrea, aurreneko tiraldin.

-“Heldu fuerte!”

Suupilletako behatzak pixkoat gehio estutzeakin aski. Neskatoak dauke hoita-hamika eskutik. Uste hortan “ikaa” hitzik ez da bintzet existitzen bere buru-bihotzetan. Lasai dao animaliei aarretik eta suur zulotatik helduta. Bere arnasan beroa sentitze'o eskun. Begi beltz haundi-haundi bat dauke parean. Nola ikuste ote due begi haundi hoitatik behiek?

Tasio eo Behiak pelikuletako eszena bat izan zitteken kontakizun hau lasai asko, baño ez, ez ta fikzioa. Oain hoitamar bat urteko eozin iluntzetako argazkie da. Botere harreman absurdo bat. Pixun ta indarrean mille buelta ematen dizkion izaki'et nola baretzen den eakusten dona, ume batek suupilletatik heltze hutseekin. Buru kolpeat nahikoa, neskatoa airean botatzeko, baño hantxe kieto iraiñe jetsi eta osotaa jetzi arte. Eozin botere harremanetan bezalaxe.

Fikzioa eta errealitatean muga zeñen lausoa izan datteken eakutsi diun ikuskizun bat izan berri da denon ahotan. Euskal pertsonaie mitologikoak argi, musika ta eszenografi apurtzallenenakin koreografi basa bezain earrak sortu dittue oholtza bakarrean. Mozorrotzea heldu den garai hortan, zomorrotze zeen garaiek etorri zazkit gogora. Nature, animalik, ardi illea, aker-aar okerrak; aarran soñue, deiadarra; sue, dantza, oiñu; behi baten aar puntan leune; begi beltz ta haundi-haundi'et beire-beire. Ta Xalbadorren heriotza. Naturekin bat itten zuen ohitture arkaikoak.

Spiderman, printzesa, pirata, txano-gorritxo... Ta behieen suupilletan, mukie, *like*. Instagramen, Like. Errealitate ta fikzioan arteko muga lauso hortako (botere) harreman absurdoak.

● ● Araxes Ikas Komunitateko LH5-6 ikasleak

# “Akelarrerako gure ametsak idatzi ondoren Zugarramurdiko kobetara joan ginen”

Araxes Ikas Komunitateko LH3, LH4, LH5 eta LH6ko ikasleek ikasturtean zehar hainbat irteera berezi izan dituzte: English Week, Liburuaren Eguna, Gorritirekin Topaketa eta Beteluko Uretara egindako bisita, besteak beste. Baina urriaren 29an bizitako abentura, zalantzarik gabe, ikasturteko une berezienetako bat izan zen.



LH3-4-5-6-ko ikasleak Zugarramurdin



Pilotalekuan jostatzen



Bertako animaliak ezagutzen

Egun horretan, motxilak bete eta emozioz gainezka abiatu ziren Zugarramurdira, hiru eguneko abentura zirraragarri bat bizitzera. Bidaia hau ez zen ohikoa izan: naturaz, historiaz eta elkarbizitzaz beteriko egunak izan ziren, non ginkanak, antzerkiak, animaliekin jolasak eta Zugarramurdiko koba magikoek ikasleen irudimena piztu zuten.

Ez zuten soilik paisaia ederrez eta abenturez gozatu; esperientziak

aukera eman zien elkarri hobeto eza-gutzeko eta laguntasun sendoagoak eraikitzeke ere. Gure eskualdeko gaztetxoek protagonista bihurtu ziren, eta orain haien hitzetan jasoko dugu esperientzia paregabe honen kontakizuna.

Ondorengo lerroetan, LH5-6ko ikasleek egindako kronika aurkituko duzu: beren hitzetatik bidaia honen magia eta giro berezia biziko dituzu.



Zugarramurdiko haizulo parean

“Urriaren 29an LH3-4-5-6ko ikasleak Zugarramurdiko Graxianea aterpera abiatu ginen autobusez. Ordu eta erdiko bidaiari ekin genion.

Iritsi ginenean hamaiketakoak jan eta aterpetzeko gela batera joan ginen eta han ekintza desberdinak egin genituen.

Bazkaldu ondoren hiru taldetan banatu gintuzten eta ginkana bat egin genuen herria ezagutzeko. Afari goxogoxo bat jan ondoren beheko solairura jaitsi ginen eta antzerkiak egin genituen. Ondoren geletara joan ginen lotara.

Hurrengo egunean gosalduta eta gero Urdazubira joan ginen paseo bat emanez. Bertako plazan bazkaldu ondoren Trikuharri izeneko animalien parke batera joan ginen. Han animalia desberdinak ikusi eta ukitzeko aukera izan genuen. Animalien artean otso australiar bat zegoen eta berarekin jolastu ginen. Animaliekin arratsalde polit bat pasa ondoren Zugarramurdiko bidea hartu genuen. Afaldu ostean disko festa egin genuen eta nahiko dantza egin eta gero lotara joan ginen.

Hurrengo egunean gosalduta aurretik maletak egin genituen. Gero beheko gelan eskulantxo bat eta akelarrerako gure ametsak idatzi ondoren Zugarramurdiko kobetara joan ginen. Han akelarre bat egin genuen. Graxiana aterpeko txangoa bukatzeko maletak hartu eta autobusez Betelura abiatu ginen.

**OSO ONGI PASA GENUEN!”**



Zugarramurdiko basoan zehar



Txangoan bizitako une bat. Argazkiak: Araxes Ikas Komunitatea



Zugarramurdiko haizuloan

**MAITE HARATEGIA**  
**BERTAKO HARAGIA**  
 Txistorra, txorizoa, saltxitxak, sukaldatutako platerak.  
 Etxera eramateko zerbitzua ere eskeintzen dizugu.  
 Antigua kalea 7  
 31890 BETELU  
 948 51 30 88 maiteharategia@hotmail.com

**German Lasarte**  
**HARATEGIA**  
 Aralar kalea 9  
 Lekunberri  
 948504157

**SAN MIGUEL**  
 gasolindegia  
 Xabier Garmendia 629 350 099  
 Ambe-Atalu

**urrutia enea**  
 etxeko hestekiak  
**LEKUNBERRI**

## Lekunberri Herri Ihotea berreskuratuko du

Lekunberriko Inauteriak laster helduko dira, aurtengoan otsailaren 21 eta 22an ospatuko direla. Berrikuntzekin datoz, ostiral arratsaldean Herri Ihotearen berreskuratzearen lehen agerraldia ospatuko delako. Kultura Saila eta Festa Batzordearen lanarekin, Lekunberri Herri Ihote bat sortzeko lanak hasi ziren gabonen ostean. Lehendik ospatu izan diren zenbait elementu berreskuratuko dira, baina gaur egunera moldatuko direnak.

Attezarko izango da pertsonaia nagusia. Heldu den otsailaren 21an, ostiralarekin, arratsaldeko 18:30etan Udaletxe aurrealdean biltzera deia egin dute, Attezarko eta bere lagun moxorroen bilaketa hasteko. Aralar Musika Eskola eta Tirikitruki Dantza Taldearen partaidetzarekin, herria egun horretarako mozorrotzeko deia egina dago, etxetik izan ditzakegun materialekin egindako mozorroz. Horien adibideak Udala eta Kultura Sailaren sareetatik zabalduko dira laster. Behin Attezarko atxilotua, dantza herrikoiak eta barrikotea izango da denentzat.

Baina Ihoteek bere egun handia larunbatean izango dute. Goiza gosariekin hasi, eta eguerdiko 12:30etan Ihote-erronda ospatuko da, Iraukorrak Txarangaz lagunduta. Aurtengoan suziri eta guzti, pasa den urteko mozorro lehiaketako irabazleek jaurtiko dutena. Ostera, emanaldiak izango dira Herriko Plazan, eta txarangak kalez kale jarraituko du herrian barna. Bazkari Herrikoia ospatuko da Jaian Jai Frontoian, eta arratsaldeko 18:00etan Irurtzango Iskidi Elkarteak kalejira egingo du Lekunberriko karrketan, Herriko Plazaraino; bertan, Attezarkoren irudia erre egingo da ohiturari jarraituz. Azkenik, berrikuntza gisan, elektrotxarngaren errondarekin amaiera emango zaie 2025ko Lekunberriko Ihoteei.

Lekunberriko Udalak gonbitea luzatzen du bizilagun zein kanpotarrak bertara hurbiltzea eta antolatu diren ekintzetan parte hartzera, beti ere Inauteriak errespetuz eta inolako erasorik gabe ospatzeko nahiarekin. Egitarau osoa laster ezagutzeko aukera izango da Udalaren eta Kultura Sailaren webgune eta sare-sozialetan.

## AGENDA

### OTSAILA

8- 21:00 Bertso afaria, Arriben, herriko elkartearen. Iker Zubeldia eta Julio Soto bertsolariekin.

8- 19:00 Ombuaren Itzala, filmaren aurkezpena. Ondoren, Patxi Biskertekin solasaldia (euskaraz). Gabari Gune Irekian.

9- 9:00 Ttutturre Kirol Elkarteak Lekunberriko Ode-ritzera antolatutako ibilaldia. 14:00 Eta ondoren, urteroko bazkaria Juanluzenean sagardotegian, Sakana Mendizaleak taldeko lagunekin.

13- 18:00 "Generación porno" dokumentala. Ondoren solasaldia Itxaso Bakedanorekin. Lekunberriko Udaletxean (Txiki Park Aretoan).

15- Beteluko inauteriak

15- 17:00 "Euskaraz bai!" haurrentzako tailerrak. Tokia aurrerago iragarriko da. Izena-ematea Euskara Zerbitzuan: [larbeleareuskaraz@iparmank.eus](mailto:larbeleareuskaraz@iparmank.eus)

15-21- "Herri inauteriak", euskal herri inauteriak eta pertsonaien erakusketa Iruñeko San Juan Xar Elkartearen partaidetzarekin. Gabari Gune Irekian.

21-22- Lekunberriko inauteriak.

23- Ttutturreren mendi irteera. Etapa 2, Bortziriako itzulua: Arantza – Ekaitza – Mendieder -Mendaur – Apaola - Sunbilla.

### MARTXOA

1- Aldazko inauteriak.

8- Emakume Langileen Nazioarteko Eguna.

8- Gorritiko inauteriak.

15- Azpirozko inauteriak.

15- Gaintzako inauteriak.

20- Udaberria.

## MERKATU TXIKIA

### GARAJE BAT SALGAI EDO ALOKAIUAN BETELUN.

Informazio gehiago nahi baduzu, deitu **690 006 283** zenbakira.

 **residuos de navarra**  
**nafarroako hondakinak**



**Etorkizun zirkularra eraikitzen dugu Construimos un futuro circular**



**tanatorios**  
**IRACHE**  
Betidanik

ALTSASU - IRURTZUN  
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

24 ORDUKO TELEFONOA  
• 948 19 70 70 •  
[www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)

**BIDEGOXO JATETXEA**

Jaunartzeak  
Ezkontzak  
Ospakizunak  
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia  
20400-TOLOSA 943 577 573  
[info@bidegoxo.com](mailto:info@bidegoxo.com)

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.  
HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:  
948 50 43 31  
Lekunberri

**MALLOAK**  
ARTZAI GAZTAK

Ortega Martikoa GAZTAK Nafarroa  
Ida. 649 877 051 • Iruñea. 649 511 051  
[malloak.com](http://malloak.com) • [info@malloak.com](mailto:info@malloak.com)

IDIAZABAI

serigrafia  
diseinua  
estanzazioa

[kaixo@gko.eus](mailto:kaixo@gko.eus) 608 228 234

INFORMATIKA XARLAR  
LEKUNBERRI - ARATZ  
LARRAUN  
JALNINIA LITAGRONIZILA

634 551 743  
[infoaralar@gmail.com](mailto:infoaralar@gmail.com)

Errozalea 19,  
Lekunberri

**MARTIÑO TXIKI**  
PERKUSIO ESKOLA

[www.martinoxiki.com](http://www.martinoxiki.com)  
679 938 016



# INAUTERIAK

## BETELU. Otsailak 15

**10:00** Plaza karrozen desfilea  
**10:30** Puskabiltza Elektrokutau taldearekin. Tartean Karrika Dantza plazan.  
**15:00** Herri bazkaria frontoian. Ondoren, mozorro lehiaketa.  
**17:45** Dantzaldia Gabezin taldearekin.  
**23:30** DJ Rivera goizalde arte. \*Bazkari autogestionatua: 634404824 \*Katering-a 646837795

## LEKUNBERRI

### Otsailak 16-20

HERRI INAUTERIEN ERAKUSKETA Euskal herri Inauterien historia eta pertsonaiak. Gabari Gune Irekian.

### Otsailak 21

**12:00** Eskolako Ihotea: desfilea Ibarberri Eskola Publikotik Herriko Plazaraino. Euria bada, Plazaola Kirolgunean.  
**18:30** Herri Ihotea: moxorroen eta Attezarkoren etorrera eta atxilotzea. Ondoren, barrikotea, mokadua eta dantza herrikoiak Herriko Plazan. Aralar Musika Eskola eta Tirikitrauki Dantza Taldearekin.

### Otsailak 22

**10:30** Gosaria Jaian Jai Frontoian. Txartelak Udaletxean eta Mitxausenean salgai otsailaren 17ra arte.  
**12:30** Suziria eta ihote-erronda Iraunkorrak Txarangak alaitua, Euskalduna Tabernatik irtenda. Ondoren, lehiaketa eta emanaldiak Herriko Plazan.  
**15:00** Herri Bazkaria Jaian Jai Frontoian. Txartelak Udaletxean eta Mitxausenean salgai otsailaren 17ra arte.  
**18:00** Irurtzango Iskidi Elkartearen kalejira Udaletxetik irtenda. Ondoren, Attezarkoren erretzea Herriko Plazan.  
**19:30** Elektrotxarangarekin kalez kale Alde Zaharretik irtenda.

## AIDATZ. Martxoak 1

**9:30** Gosaria elkartzean. Ondoren, kalejira.  
**14:30** Bazkaria elkartean. Ondoren, kalejira.  
**19:30** Ipurdilatzen erretzea.

## GORRITI. Martxoak 8

**12:00** Kakomomori harrera zaratatsua.  
**12:30** Trikitilariekin poteoa.  
**14:30** Herriko etxean bazkaria.  
**19:00** Erronda herrian barrena.  
**20:00** Kakomomoren erretzea.  
**21:00** Afaria herriko etxean. Herriak jarriko du afari mokadua.  
**22:00** Musika herriko etxean.

## AZPIROTZ. Martxoak 15

**9:30** Gosaria elkartean. Ondoren, Lezaetara kalejira.  
**14:30** Bazkaria. Izena emateko azken eguna: martxoak 1.  
**17:30** Desfilea herriko barrena.  
**19:00** Txokolatada.

## GAINZA. Martxoak 15

**11:00** Puskabiltza, eguerditik afal ordura arte Txarangarekin, 25. urteurrena ospatzeko.  
**19:00** Poteo Herrikoia Beti-Ke txarangaz alaiturik.  
**21:00** Herri Afaria Sonbelu Elkartean. Bokadilloak hartzeko aukera ere egongo da aurretik erreserbatuta.  
**22:00** DJ Gaintza.  
**00:00** DJ Fifi Ta Fefa. Eta sorpresa ugari: Photocall-a, zozketa, etab.

LARRAUNGO

aek

Mintza  
kide



Artzanegi 6  
Lekunberri

larraun@aek.eus

948604704 607622102

Ikasturte honetan MINTZAKIDeko taldeak ere arituko dira gurean. Euskara lagunartean praktikatu nahi baduzu jarri AEK Euskaltegiarekin harremanetan.

Bizitzeko tokia	Elkartzeko eguna eta ordua
Lekunberriko Kantinan, euskaraz aritzeko taldea	Ostiralean, arratsaldeko 16:00etan
Lekunberriko jubilatuetan, euskaraz aritzeko taldea	Asteartean, goizeko 10:30ean
Atalluko San Migel ostatuan, hitanok aritzeko taldea	Ostiralean, arratsaldeko 19:00etan

Animatzen al haiz Larraun-Lekunberri ikaz aritzera astean behin ordu betez? Araitz aldean ari ditun/k!!! Hala bada dei ezan/k eta elkartuko gaitun/k.